



## Andre Mariaren eliza

## Iglesia de Santa María

### Potugalete

Eliza leku ezin hobe batean dago, hiribilduko portuaren eta itsasadarraren gainean, eta horrek Portugaleteko eraikinik garrantzitsuenekoa bihurtzen du.

Gaur egungo eraikina 1492 hasi zen egitea eta ez zen amaitu 1600era arte. Prozesu luze horregatik, estilo hibrido eta anbigua du, Erdi Aroko kutsu handiagorekin Errenazimentukoa baino. Kolore arreko hare-harrian landuta dago. Bost atal dituen hiru nabeko oinplanoa du, erdikoa alboetakoa baino zabalagoa. Behe kaperak kontrahorma artean daude, lerrokatuak eta sakonak. Ez dauka gurutzadurarik eta soilik nabe nagusia bukatzen da abside poligonal batean.

Altzariak kalitate handikoak dira. Erretaula nagusia nabarmentzen da; izan ere, Euskal Herriko eskultura errenazentistako lanik bikainenetakoa da. Sakristian museo txiki bat dago, eta bertan tenpluko orfebreria; XVII. mendeko Ekisaindu Nagusi peruarra nabarmentzen da.

La privilegiada situación de la iglesia, dominando el puerto de la villa y la ría, la ha convertido en uno de los hitos referenciales de Portugaleta.

La fábrica actual se inicia hacia 1492 y no se finaliza hasta 1600. Este largo proceso determina que se resuelva con un estilo híbrido y ambiguo, más medieval que renacentista. Está labrada en arenisca de tonalidad tostada. Responde al modelo de planta de tres naves de cinco tramos, la central más ancha que las laterales. Las capillas bajas se presentan alojadas entre los contrafuertes, alineadas y profundas. No dispone de crucero y solamente la nave mayor se remata en ábside poligonal.

El mobiliario es de gran calidad. Destaca el retablo mayor, una de las obras más sobresalientes de la escultura renacentista del País Vasco. En la sacristía hay un pequeño museo donde se recoge la orfebrería del templo; sobresale una Custodia Mayor peruana del siglo XVII.

## Salazar dorrea

## Torre de Salazar

### Portugaleta

1493. urtean Gaztelako koroari jakinarazi zitzaion Ochoa de Salazarrek dorre bat eraikitzen zegoela, garai hartan, oraindik puri-purian zeuden bandoen arteko gerren ondorioz debekatuta zegoena, hain zuzen. Eraikinak ordutik aldaketa asko jasan ditu.

Solairu angeluzuzena -9,20 11,90 m- du, eta ez da oso altua - 12 m jatorrian -, baina gaur egun 16 metro ditu-. Hormak, gutxi gorabehera metro bat baino gehiagoko zabalera dutenak, ilaretan antolatuta daude eta harlangaitzez egin dira, eta ertzetan harlanduez sendotuta daude, hori guztia lauki handiez osatutako oinarriarekin. Jatorrian hiru solairu bakarrik zituen, baina XIX. mendeko helburuen aldaketa dela medio, bizitzeko aretoaren eta ganbararen artean beste solairu bat kokatu zen. Barruko egitura oin zuzenak, habeak, solibak eta taula euskarri dituen zurezko eskeletoarekin osatzen da. Zernahi gisaz, hori guztia noski zenbait aldiz berriztatu da. Halaber, gaur egungo forjaketak hormigoizkoak dira.

En 1493 se notificó a la corona castellana que Ochoa de Salazar estaba construyendo una torre, cosa que en aquel momento, con las guerras de bandos aún recientes estaba prohibido. El edificio ha conocido muchos cambios desde entonces.

Es de planta rectangular -9,20 11,90 m-, y no muy alta -unos 12 m en sus orígenes, aunque hoy llega a los 16-. Sus muros, de poco más de 1 m de anchura, son de mampostería ordenada en hiladas y reforzada en los esquinales mediante sillares, todo ello apoyado en un basamento de grandes bloques recuadrados. En origen sólo tuvo tres alturas, pero la reforma de fines del XIX intercaló una planta entre el piso vividero y la ganbara. La estructura interior estaría conformada por el habitual esqueleto de madera a base de pies derechos, vigas, solivos y tabla, pero evidentemente todo ello ha sido renovado en diversas ocasiones. Los actuales forjados son de hormigón.



Víctor Chávarriren omenezko monumentua 2008  
Monumento a Víctor Chávarri



## Víctor Chávarriren omenezko monumentua

## Monumento a Víctor Chávarri

### Portugalete

Víctor Chávarri (Portugalete, 1854 - Marsella, 1900) pertsona garrantzitsua izan zen, XIX. mendean, Bizkaiko industrializazioan, era aktibo batean jardun zuelako politiko eta enpresaburu gisa. Hil zenean, Portugaleteko Udalak monumentua agindu zion Miguel Blayri (1886-1933), eskuturgile garrantzitsua Espainiako eskulturaren modernizazioan.

Plaza del Solar izenezkoan dago, Udaletxearen, López Bustamante etxearen, trenaren antzinako geltokiaren eta musika kioskoaren ondoan.

Eskulturak zazpi metro baino gehiago eta hiru elementu ditu: oinarria, kareharrizkoa; idulkia, marmolezkoa; eta multzo eskultorikoa, brontzezkoa -Víctor Chávarriren bustoa, langile taldea, oroitarria irudikatuari buruzko gertakari garrantzitsuenekin eta haritz adarra-.

Estetikoki eragin bikoitza du: kontserbadorea, brontzezko elementuetan -Meunier-en errealismo sozialarekin lotuta- eta abangoardista, harrizko blokean.

Víctor Chávarri (Portugalete, 1854-Marsella, 1900) fue una de las figuras clave en la industrialización vizcaína del s. XIX por su activo papel como político y empresario. Cuando murió, el Ayuntamiento de Portugalete designó a Miguel Blay (1886 - 1933), escultor destacado de la modernización de la escultura española, para realizar el monumento.

Se halla en la plaza del Solar, junto al Ayuntamiento, la casa López Bustamante, la estación antigua de ferrocarril y el quiosco de música.

La escultura, de más de siete metros, se compone de tres elementos: la base de piedra caliza, el pedestal de mármol y el grupo escultórico en bronce -busto de Víctor Chávarri, grupo de obreros, lápida con los hechos relevantes del homenajeado y rama de roble-.

Estéticamente se percibe una doble influencia: la conservadora en los elementos de bronce -en línea con el realismo social de Meunier- y la vanguardista en el bloque de piedra.

## Hilerria

## Cementerio

### Portugalete

Portugaleteko udal hilerrian, aparteko kalitatea duten hilobi-multzo nabarmena biltzen da, 1880 eta 1930. urteen bitartean eraikitakoa. Estilo nagusiak eklektizismoa eta neomedievalismoa dira.

Nekropolia Severino de Achucarrok 1877. urtean diseinatu zuen, solairu angeluzuzenarekin. Bada, esparrua etxe-uharteetan antolatzen zuen, miniaturazko herriaren itxurarekin. Ardatz monumental eta eredugarria definitu zuen: etorbide nagusia, ertz batean eta bestean kokatutako portalearekin eta kaperarekin inguratuta. Portalea lengoia eklektikoaren egitura zainduarekin diseinatu zuen. Kaperak Emilio Pagazaurtunduren diseinua da, erregistro neogotiko errepikakorraren kutsuarekin eratutakoa.

Horrez gain, zenbait kaperak eta panteoi eskultorikoak nabarmendu behar dira (Juaristi, Chapa, Chávarri, Manuel Calvo, Juan José Conde Pelayo, Vicuña sendia, ea.). Hain zuzen ere, horien artean Bizkaiko hileta-eskulturaren adibiderik adierazgarrienak aurkitzen dira.

El Cementerio Municipal de Portugalete reúne un notable conjunto de sepulcros de excepcional calidad, construidos entre 1880 y 1930. Sus estilos dominantes son el eclecticismo y el neomedievalismo.

La necrópolis la diseñó Severino Achúcarro en 1877 con una planta rectangular, que ordenaba el espacio en manzanas, a modo de una ciudad en miniatura. Definió un eje monumental y representativo: una avenida principal flanqueada en un extremo por la portada y en el otro por la capilla. La portada la diseñó con un lenguaje ecléctico de cuidada factura. La capilla es un diseño de Emiliano Pagazaurtundua, con un registro neogótico repetitivo.

Son dignos de destacar algunas de las capillas y panteones escultóricos (Juaristi, Chapa, Chávarri, Manuel Calvo, Juan José Conde Pelayo, familia Vicuña, etc.), entre los que se encuentran algunos de los ejemplos más sobresalientes de la escultura funeraria vizcaína.

Portugaleteko hilerria  
Cementerio de Portugalete

2008

